# INFORMAZIOAK
# INFORMACIONES

## LEGEBILTZARREKO ORGANOEN ERABAKIAK ETA KOMUNIKAZIOAK
## ACUERDOS Y COMUNICACIONES DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

*Legebiltzarreko saio guztiak aurrez aurre egitea*

Legebiltzarreko Mahaiak, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera epidemiologikoa ikusita, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, 2021eko irailaren 14an egindako bilkuran, eta Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 36. artikuluarekin bat etorriz, honako erabaki hau hartu du.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**LEGEBILTZARREKO SAIO GUZTIAK AURREZ AURRE EGITEA**

**Erabakia**

**Lehenengoa**. Deitzen diren Legebiltzarreko saio guztiak (osoko bilkurak, batzordeak eta ponentziak) aurrez aurre egitea xedatzen da, eta horiek Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren arabera garatuko dira.

**Bigarrena**. Legebiltzarkideren batek, banaka, isolamendu-egoeran egon behar badu nahitaezko konfinamendu baten ondorioz edo COVID-19aren gaixotasunaren ondorioz osasun-agintaritzak aurreikusitako kasuren baten ondorioz (gaixoren batekin harreman estua izatea, adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzea, etab.), botoa eskuordetu ahal izango du, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 89.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Azken xedapenetatik lehenengoa**. Indargabetuta geratzen dira osoko bilkuretan eta batzorde-aretoetan dauden legebiltzarkideen kopurua murriztea ezartzen zuten erabakiak, muga horiei dagokienez.

**Azken xedapenetatik bigarrena**. Erabaki hau Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, 2021eko irailaren 16ko osoko bilkurari buruzko aurreikuspenei kalterik egin gabe.

***

*Celebración presencial de todas las sesiones parlamentarias*

La Mesa del Parlamento, a la vista de la situación epidemiológica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, oída la Junta de Portavoces, en sesión celebrada el día 14 de septiembre de 2021, y de conformidad con el artículo 36 del Reglamento del Parlamento Vasco ha adoptado el siguiente acuerdo.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**CELEBRACIÓN PRESENCIAL DE TODAS LAS SESIONES PARLAMENTARIAS**

**Acuerdo**

**Primero**. Se dispone la celebración presencial de todas las sesiones parlamentarias que se convoquen, tanto de pleno como de comisiones y ponencias, desarrollándose estas de conformidad con el Reglamento del Parlamento Vasco.

**Segundo**. En los casos en los que de manera individualizada alguna parlamentaria o parlamentario deba permanecer en situación de aislamiento como consecuencia de un confinamiento obligatorio o de alguno de los supuestos previstos por la autoridad sanitaria por causa de la enfermedad por COVID-19 (contacto estrecho con alguna persona enferma, cuidado de menores o personas dependientes, etc…), podrá delegar el voto de conformidad con lo dispuesto en el artículo 89.1.c) del Reglamento del Parlamento Vasco.

**Disposición final primera**. Quedan derogados los acuerdos que establecían la reducción del número de parlamentarias y parlamentarios presentes en las sesiones plenarias y en las salas de comisión, en lo referente a dichas limitaciones.

**Disposición final segunda**. El presente acuerdo entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco, sin perjuicio de las previsiones relativas a la sesión plenaria del día 16 de septiembre de 2021.

***

*Eusko Legebiltzarreko prebentzio-neurriak SARS-CoV-2 koronabirusarekiko esposizio-arriskuagatiko kontingentzia Planaren arabera*

Mahaiak, 2021eko irailaren 14an egindako bileran, ikusita Euskadiko oraingo egoera

*Medidas preventivas en el Parlamento Vasco, de acuerdo con el Plan de contingencia por riesgo de exposición a coronavirus SARS-CoV-2*

La Mesa, en su reunión del día 14 de septiembre de 2021, a la vista de la situación actual

epidemiologikoa, 2. alerta-mailan dagoena, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak prebentzio-neurri gainean egindako txostena eta Mantentze Atalaren, Protokolo Atalaren eta Prentsa eta Komunikazio Atalaren txostenak, horien guztien izenean, jarraian zehazten diren prebentzio-neurriak onartu ditu.

Neurri hauek behin-behinekoak dira, osasun- eta gobernu-agintarien xedapenen arabera pandemiak irauten duen bitartean sor daitezkeen egoera desberdinen aurrean egin behar den etengabeko egokitzapenaren araberakoak, eta ez dute galarazten Mahaiak, Ganberaren autonomia baliatuz, jarduera parlamentarioaren ezaugarrien arabera beste neurri batzuk hartzea.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUSKO LEGEBILTZARREKO PREBENTZIO-NEURRIAK SARS-COV-2 KORONABIRUSAREKIKO ESPOSIZIO-ARRISKUAGATIKO KONTINGENTZIA PLANAREN ARABERA**

**Lehenengoa. Babes-neurri orokorrak**

COVID-19a kutsatzeko arriskuari aurre egiteko babes-neurri orokorrak aplikatuko dira. Neurri horiek Mahaiak zehaztuko ditu, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak aldez aurretik txostena eginda, eta Ganberaren berezko funtzioetara egokitzea galarazi gabe.

Horretarako, kontuan hartuko dira hauek:

a) 2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoa.

b) 36/2021 Dekretua, abuztuaren 30ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa, eta alor horretan eman beharreko etorkizuneko arauak.

c) Eusko Legebiltzarreko SARS-CoV-2 koronabirusarekiko esposizio-arriskuagatiko kontingentzia Plana, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak egindakoa.

**Bigarrena. Edukierak** (Txostena dator)

Eusko Legebiltzarraren egoitzako esparruen edukierak eguneratu dira, uztailaren 7ko 33/2021 Dekretua, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena jasotzeko prebentzio-neurriak eguneratzeari eta zehazteari buruzkoa, hirugarren aldiz aldatzen duen lehendakariaren abuztuaren 30eko 36/2021 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz eta Mantentze

epidemiológica en el País Vasco, clasificada en nivel de alerta 2, del informe de medidas preventivas del Servicio de Prevención de Riesgos Laborales y de los informes de la Sección de Mantenimiento, de la Sección de Protocolo y de la Sección de Prensa y Comunicación, aprueba las medidas preventivas que se indican a continuación.

Estas medidas tienen carácter provisional, en función de la continua adaptación que conforme a las disposiciones de las autoridades sanitarias y gubernativas deban llevarse a cabo ante los distintos escenarios que se puedan producir mientras dure la pandemia, y sin perjuicio de aquellas otras que conforme con la autonomía de la Cámara se adopten por la Mesa atendiendo a las peculiaridades de la actividad parlamentaria.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**MEDIDAS PREVENTIVAS EN EL PARLAMENTO VASCO, DE ACUERDO CON EL PLAN DE CONTINGENCIA POR RIESGO DE EXPOSICIÓN A CORONAVIRUS SARS-COV-2**

**Primero. Medidas generales de protección**

Se aplicarán las medidas generales de protección frente al riesgo de contagio por el COVID-19 que se determinen por la Mesa, previo informe del Servicio de Prevención de Riesgos Laborales y sin perjuicio de su adaptación a las funciones propias de la Cámara.

A estos efectos se tendrán en cuenta:

a) La Ley 2/2021, de 24 de junio, de medidas para la gestión de la pandemia de COVID-19.

b) El Decreto 36/2021, de 30 de agosto, del Lehendakari, de tercera modificación del Decreto 33/2021, de 7 de julio, de actualización y determinación de medidas de prevención para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, y las sucesivas normas que se dicten en dicho ámbito.

c) El Plan de contingencia por riesgo de exposición a coronavirus SARS-CoV-2 en el Parlamento Vasco, elaborado por el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales.

**Segundo. Aforos** (Inserta informe)

Se actualizan los aforos de los recintos de la sede del Parlamento Vasco, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 36/2021, de 30 de agosto, del Lehendakari, de tercera modificación del Decreto 33/2021, de 7 de julio, de actualización y determinación de medidas de prevención para contener la propagación de infecciones causadas por

Ataleko buruak egindako proposamenaren arabera (txosten honi erantsita doa proposamena).

Indarrik gabe utzi dira 2020ko urriaren 6ko eta azaroaren 3ko Mahaiaren erabakiak, Eusko Legebiltzarraren egoitzaren eraikinari dagokionez.

**Hirugarrena. Jarduera ez-parlamentarioak** (Txostena dator)

Berriro ekingo zaie jarduera ez-parlamentarioei, Mahaiak erabakiko duenaren arabera. Zehazki, bisita gidatuen erregimena Protokoloko atalburuaren proposamenaren arabera egingo da (txosten honi erantsita doa proposamena).

Nolanahi ere, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ezarritako higiene-eta segurtasun-neurriak betetzen direla bermatu beharko da.

Indarrik gabe geratzen da 2020ko martxoaren 10eko mahaiaren erabakia, jarduera ez-parlamentarioen gainean indarrean egon litekeenari dagokionez.

**Laugarrena. Gizarte-hedabideak** (Txostena dator)

Prentsa eta Komunikazioko atalburuak proposatutako irizpideen arabera garatuko da behar bezala akreditatutako prentsa, irrati, telebista eta gainerako hedabideetako kazetarien presentzia prentsaurrekoetan, bilkura parlamentarioetan eta beste ekitaldi instituzional edo jarduera parlamentario guztietan (txosten honi erantsita doaz irizpideak).

Era berean, ondoko arauetan aurreikusitakoa beteko da, proposatutako edukiera eta irizpide berrien arabera interpretatuta: prentsa akreditatzeko arauak, Mahaiak 2020ko irailaren 29an onetsitakoak, prentsa-aretoa erabiltzeko protokoloa, Mahaiak 2020ko irailaren 1ean onetsitakoa, eta 2020ko azaroaren 3ko instrukzioaren seigarren apartatuta.

**Bosgarrena. Kafetegira sartzea eta hori erabiltzea**

Kafetegira sartzeko eta hori erabiltzeko 2020ko azaroaren 3ko Instrukzioaren zortzigarren apartatuan eta 2021eko otsailaren 9ko mahaiaren erabakian xedatutakoa beteko da, Mantentze Ataleko buruak proposatutako edukieraren arabera.

## Azken xedapenak

**Lehenengoa**. Oraindik indarrean dago Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren 2020ko azaroaren 3ko instrukzioa, Eusko Legebiltzarreko aretoetako sarrera, presentzia, erabilera eta funtzionamendua arautzen dituena, baina interpretatu beharko da, bereziki osoko bilkuren aretoko eta batzorde-aretoetako edukierei eta

el SARS-CoV-2, y de acuerdo con la propuesta hecha por la jefa de la sección de mantenimiento, que se adjunta anexo a este informe.

Quedan sin efecto los acuerdos de Mesa de 6 de octubre y de 3 de noviembre de 2020, respecto del edificio de la sede del Parlamento Vasco.

**Tercero. Actividades extraparlamentarias** (Inserta informe)

Se reanudan las actividades extraparlamentarias que se acuerden por la Mesa. En concreto, el régimen de las visitas guiadas se realizará de acuerdo con la propuesta hecha por la jefa de la Sección de Protocolo, que se adjunta anexo a este informe.

En todo caso, se deberá garantizar el cumplimiento de las medidas de higiene y seguridad que establezca el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales.

Queda sin efecto el acuerdo de Mesa de 10 de marzo de 2020, en lo que pudiera estar vigente en lo relativo a las actividades extraparlamentarias.

**Cuarto. Medios de comunicación social** (Inserta informe)

La presencia de periodistas de prensa, radio, televisión y demás medios de comunicación debidamente acreditados en las ruedas de prensa, sesiones parlamentarias y cualquier otro acto institucional o actividad parlamentaria, se desarrollará conforme a los criterios propuestos por la jefa de la Sección de Prensa y Comunicación, que se adjunta anexo a este informe.

Asimismo, se atenderá a lo previsto en las Normas de acreditación de la prensa aprobadas por la Mesa el 29 de septiembre de 2020, en el Protocolo para el uso de la sala de prensa aprobado por la Mesa el 1 de septiembre de 2020 y en el apartado sexto de la instrucción de 3 de noviembre de 2020, todos ellos interpretados según los nuevos aforos y criterios propuestos.

**Quinto. Acceso y uso de la cafetería**

El acceso y uso de la cafetería se regirá conforme a lo dispuesto en el apartado octavo de la Instrucción de 3 de noviembre 2020 y el acuerdo de Mesa de 9 de febrero de 2021, siguiendo el aforo propuesto por la jefa de la sección de mantenimiento.

## Disposiciones finales

**Primera**. La instrucción de 3 de noviembre de 2020 de la Mesa del Parlamento Vasco por la que se regula el acceso, la presencia, uso y funcionamiento de las distintas salas del Parlamento Vasco sigue vigente, si bien deberá interpretarse, especialmente en lo referente a los aforos y número máximo de personas

gehieneko pertsona-kopuruari dagokienez, arau hauetan eta Mahaiak hartuko dituen guztietan legebiltzarkideen presentzialtasunari dagokionez xedatutakoaren arabera.

**Bigarrena**. Legelari nagusiari eskatzen zaio ezen, hilabeteko epean, azaroaren 3ko instrukzioa ordezkatuko duen instrukzio-proposamen bat aurkez dezala, Mahaiaren erabaki guztiak egokituta eta bilduta.

**Hirugarrena**. Erabaki honen berri emango zaie legebiltzarkideei, funtzionarioei, talde parlamentarioetako langileei, segurtasun-koordinatzaileari, baita, dagokien zatian, akreditatutako gizarte-hedabideei eta kafetegiko zerbitzuari ere.

**Laugarrena**. Erabaki honek ondorioak izango ditu onartu eta hurrengo egunetik aurrera, eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

***

en el salón de plenos y salas de comisiones, según lo dispuesto en las presentes normas y todas aquellas que adopte la Mesa, en relación con la presencialidad de las parlamentarias y parlamentarios.

**Segunda**. Se encomienda al Letrado Mayor para que en el plazo de un mes presente una propuesta de instrucción en la que proceda a la actualización y recopilación de los diversos acuerdos de Mesa que sustituya a la instrucción de 3 de noviembre.

**Tercera**. Se trasladará este acuerdo a las parlamentarias y parlamentarios, al personal funcionario, al personal de los grupos parlamentarios, al coordinador de seguridad, así como, en la parte correspondiente, a los medios de comunicación social acreditados y al servicio de cafetería.

**Cuarta**. El presente acuerdo tendrá efectos desde el día siguiente a su aprobación y se publicará en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

***

## LEGEBILTZARREKO ORGANOEN OSAERA
## COMPOSICIÓN DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

*Euzko Abertzaleak taldeak batzorde parlamentarioetan egindako legebiltzarkide-banaketa berria*
(12/06.04.01.00001), (12/06.11.01.00001), (12/06.14.01.00001), (12/06.15.01.00001), (12/06.16.01.00001)

Mahaiak, 2021eko irailaren 14ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila legebiltzarkide-banaketa berria.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**Jasangarritasun, Ingurumen eta Ingurune Naturalaren Batzordea**

María Eugenia Arrizabalaga Olaizola
Mikel Arruabarrena Azpitarte
Unai Grajales Rodríguez
Elena Lete García
Luis Javier Tellería Orriols
Ainara Zelaia Markaida

**EITBren Kontrol Batzordea**

Iñaki Aguirre Arizmendi
Jon Aiartza Zallo
Leixuri Arrizabalaga Arruza
Joseba Díez Antxustegi
Rakel Molina Pérez
Irune Zuluaga Zamalloa

*Nueva distribución de parlamentarias y parlamentarios del grupo Nacionalistas Vascos en comisiones parlamentarias*
(12/06.04.01.00001), (12/06.11.01.00001), (12/06.14.01.00001), (12/06.15.01.00001), (12/06.16.01.00001)

La Mesa, en su reunión del día 14 de septiembre de 2021, ordena la publicación de la nueva distribución de parlamentarias y parlamentarios en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**Comisión de Sostenibilidad, Medio Ambiente y Medio Natural**

María Eugenia Arrizabalaga Olaizola
Mikel Arruabarrena Azpitarte
Unai Grajales Rodríguez
Elena Lete García
Luis Javier Tellería Orriols
Ainara Zelaia Markaida

**Comisión de Control de EITB**

Iñaki Aguirre Arizmendi
Jon Aiartza Zallo
Leixuri Arrizabalaga Arruza
Joseba Díez Antxustegi
Rakel Molina Pérez
Irune Zuluaga Zamalloa